

## MIREN AZKARATE

Deskribapena: Kike Miren Azkaraterekin elkarrizketan ageri da.

Kike: “Miren, azkenengo berrogeita hamar urte hauetan, euskerari berari dagokionez egoera zeharo aldatu da, ezta?”

Miren: “Ikaragarri, orain dala berrogeita hamar urte idazle talde batek Baionan batasunerako urratsak eta gutxienez, batasunerako arau gutxieneko batzuk, ba, ortografia ta aditz laguntzailea ta holako batzuk eskatzen zitun, horri heldu zion Euskaltzaindiak mila bederatziehun eta hirurogeita zortzian, handik hona, ba, pentsa, euskara hezkuntza munduan sartu zaigu baina barru-barruraino; unibertsitatean ere muturreraino, baita doktore-tesiak idazteraino ere; administrazioan sartu zaigu, beharbada ez nahi genukeen beste, ta administrazioko testu nagusiak gaur egun bi hizkuntzatan daude eta egunetik egunera gehiago, herritarrari ere euskeraz egiten zaio arreta hala nahi baldin badu; hedabideetan sartu zaigu, osasunaren munduan ere, poliki-poliki bagoaz. Beraz, alderdi horretatik, bide haundia egin du euskerak.<sup>2</sup>

Kike: “Eta nun gabiltza herren?”

Miren: “Lagunartea, etxeko erabilera, lanekoa, lankideen artekoa ere. Euskara batua, azken batean aldaera estandarra da eta aldaera estandar guztiak, hizkuntza guztietan izaten dira formalak eta hori da haur eta gazteek, eskolan D ereduan edo ikasten dutena. Eta gaur egun, euskararen historian lehen aldiz, gure haur eta gazteen erdiak baino gehiagok eskolan ikasi du euskara eta ez etxean. Eta zer gertatzen zaie? Eredu formala badute, baina gero lagunarteko harreman horietarako motz geratzen zaie eredu formal hori, beste zerbait behar dute, beste hizkuntza e, arauak hautsiko dituna, e, jolas egiteko, gozatzeko balioko dien e, eredu bat.”